7º.- **Argitaratzea** Araudiaren Aldaketaren **testu osoa** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, behin eta aipatutako erabakia Estatuko Administrazioari eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari jakinarazten zaienetik 15 egun pasa ondoren, Tokiko Erregimen Oiñarrietako Lege Erregulatzailearen 65.2 artikuluak xedatzen duenaren arabera.

7º.- **Publicar el Texto íntegro** de la Modificación del Reglamento en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, una vez transcurridos 15 días desde la notificación del referido acuerdo al órgano de la Administración del Estado, así como al de la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca, a los efectos de lo dispuesto en el art. 65.2 de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local.

**10. Errenteriako IrabaziZek aurkeztutako mozioa, Atzerritarrak Barneratzeko Zentroak (CIE) ixtearen aldekoa.**

**10. Moción que presenta el Grupo Municipal Errenteriako IrabaziZ en relación con el cierre de los centros de internamiento de extranjeros (CIE).**

Mozio hau irakurri dute:

Leída la siguiente moción:



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Atzerritarrek Espainiako estatuan dituzten eskubide eta askatasunei buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege organikoaren baitan kokatzen dira CIEak eta larriki urratzen dute Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean adierazitakoa. CIEak definitzen dira espetxeak ez diren instalazio publiko gisa; bertan atxikitzen dira egoera irregularrean dauden atzerritarrak, kanporatzeko prozesua errazagoa izan dadin; gehienez ere 60 egunetan eduki ditzakete askatasunaz gabetuta.

Baina errealitatea oso bestelakoa da, eta CIEak ere kartzelak dira, eta atxikitzeko arrazoi nagusiak dira falta administratiboak, adibidez, bizitzeko edo lanerako baimenik ez izatea; guztia ere herrialdetik kanporatu aurreko pauso gisa. Zentro horien izaerak agerian uzten du sistema ezgai honen arbitrariotasuna: zentro horietara eramaten ditu sarekadetan atxilotutako ehunka mila gizaki, profil etniko soila oinarri hartuta. Migrazio-politika gai konplexua dela esateak bistako kontu bat deskribatzen du, baina, aldi berean, egia ezkutatzen du.

Zentro horiek Barne Arazoetako Ministerioak kudeatzen ditu Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez; hartara, Espainiako marko juridikoan ulertu behar dira “poliziaren ziegaren luzapen” gisa.

Gaur egun, Espainiako estatuan zazpi CIE daude: Madril (Aluche), Bartzelona (Zona Franca), Murtzia (Sangonera), Valentzia (Zapadores), Algeciras (La Piñera), Tenerife (Hoya Fría) eta Las Palmas Kanaria Handikoa (Barranco Seco).

Los CIEs están encajados en la Ley Orgánica 4/2000 del 11 de enero sobre los derechos y las libertades de los extranjeros en el estado español y que vulnera gravemente el contenido de la Declaración Universal de los Derechos Humanos. Los CIEs son definidos como instalaciones públicas de carácter no penitenciario donde se retiene, con el objeto de facilitar su expulsión a las personas extranjeras en situación irregular, privándolas de libertad durante un periodo máximo de 60 días.

Pero la realidad es muy diferente y los CIEs no son más que cárceles donde se encierra, en su mayoría, a personas que tan sólo han cometido faltas administrativas como no tener permiso de residencia o de trabajo, previo paso a su expulsión del país. Su naturaleza expresa la arbitrariedad de un sistema incapaz, que los llena con decenas de miles de seres humanos detenidos en redadas cuya única guía es el perfil étnico. Decir que la política migratoria es un tema complejo vale para describir una certeza, pero también para ocultar una verdad.

Estos centros están gestionados por el Ministerio del Interior a través de la Dirección General de la Policía, por lo que, en el marco jurídico español, deben ser entendidos como “extensiones de un calabozo policial”.

Actualmente en el estado español existen siete CIEs: Madrid (Aluche), Barcelona (Zona Franca), Murcia (Sangonera), Valencia (Zapadores), Algeciras (La Piñera), Tenerife (Hoya Fría) y Las Palmas de Gran Canaria (Barranco Seco).

Gizarte-erakunde, instituzio eta nazioarteko erakunde askok salatu dute opakoak direla eta bertan sartzen dituzten pertsonen bizi-baldintzak ez direla batere egokiak: tratu txarrak, bakartzeko ziegak eta oinarrizko eskubideen urraketak. Egiaztatu da, beste hainbat egoera larriren artean, gizakien salerosketaren eta bestelako indarkerien biktima diren emakumeak edukitzen dituztela eta askotan kanporatu egiten dituztela jakinarazi gabe asiloa eskatzeko eskubidea dutela.

Horregatik, Errenteria IrabaziZ taldeak hau eskatzen dio Errenteriako Udalbatzari:

- Errenteriako Udalak salatzen du atzerritarrak barneratzeko zentro horietan hainbat giza eskubide larriki urratzen direla:

1. Zentroetan atxikitutako pertsonek torturak, bortxaketak eta salerosketak jasatea zentroetan bertan.

2. Poliziak identifikatzeko sistemarik ez izatea.

3. Bideo-kontroleko sisteman eremu grisak egotea.

4. Lesioen parte medikurik ez egitea zentroko medikuek.

5. Atxikitutako pertsonak epaile edo fiskalarekin harreman zuzenik ezin izan izatea kexak edo salaketak helarazteko.

6. Kexak eta eskakizunak jasotzeko sistemarik ez egotea edo egokia ez izatea.

Muchas organizaciones sociales, instituciones y organismos internacionales han denunciado su opacidad y las condiciones de vida de las personas internas: malos tratos, celdas de aislamiento y violaciones de sus derechos fundamentales. Se ha comprobado, entre otras situaciones graves, la presencia de mujeres víctimas de trata y de otras formas de violencia, que en muchas ocasiones son expulsadas sin haber sido informadas de su derecho a solicitar asilo.

Por ello el grupo municipal de Errenteria IrabaziZ proponemos al Pleno del Ayuntamiento de Errenteria:

- El Ayuntamiento de Errenteria denuncia la vulneración grave de derechos humanos en estos centros de internamiento de extranjeros tales como:

1. Torturas, violaciones y trata  a internos dentro de los centros.

2. Ausencia de sistemas de identificación de los policías.

3. Zonas grises en el sistema de vídeo-control.

4. Negativa a elaborar partes médicos de lesiones por parte del personal médico del centro.

5. Imposibilidad de acceso directo del interno al juez o al fiscal para expresar quejas o denuncia.

6. Un sistema de quejas y peticiones inexistente o inadecuado.



C.I.F. P-2007200-E  Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

7. Bakartzeko ziegek ez betetzea erabilera-baldintzak.

8. Atxikitutako pertsonari ez jakinaraztea bere abokatua nor den jakiteko eta bere kabuz harekin harremanetan jartzeko nahitaezko datuak, eta fitxan ere ez jasotzea datuok.

- Errenteriako Udalak eskatzen dio Gobernuari ixteko atzerritarrak barneratzeko zentro guztiak, arrazoi hauengatik:

1. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako eskubideak urratzen dituztelako, bai eta Giza Eskubideak eta oinarrizko askatasuna babesteko Europako Hitzarmenean adierazitakoak ere (Espainiako estatuak berretsi zuen hitzarmena).

2. Ez dutelako betetzen zabaldu zituztenean ezarri zen helburua, alegia, migrazio-fluxuak kontrolatzea.

3. Ez dutelako eskaintzen 1999ko otsailaren 22ko Aginduaren 12 eta 13. artikuluan ezarritako etengabeko laguntza sanitariorik. Artikulu horiek xedatzen dute atxikitutako pertsonek osasun-laguntza izango dutela eta ospitalera eramango dituztela ezinbestekoa denean.

Hauek mintzatu dira:

* Basurto andreak (Errenteria IrabaziZ) adierazi du CIEek ez dituztela betetzen sortu zirenean ezarri zitzaien helburua; ez dute haiek esaten, herriaren defendatzaileak ere esaten du; aurtengo artikulu batean komentatzen zuen 2015ean CIEetan atxikitako 6.930 migratzaileen % 59 ez zirela

7. Celdas de aislamiento que incumplen normas de uso.

8. Comunicación y registro y ausencia de los datos obligatorios en la ficha que permitirán al interno saber quién es su letrado o contactarle de forma independiente.

- El Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno al cierre absoluto de estos centros de internamiento de extranjeros por los siguientes motivos:

1. Porque vulneran los derechos humanos contemplados en la Declaración Universal de los Derechos Humanos, así como el Convenio Europeo para la Protección de DD.HH. y de las libertades fundamentales ratificado por el Estado Español

2. Porque no cumplen con el objetivo por el que se justificó su apertura que no era otro que controlar los flujos migratorios.

3. Porque no cuentan con asistencia sanitaria permanente recogida en los art. 12 y 13 de la Orden 22 de febrero de 1999. Donde se establece que los internos tendrán acceso a atención médica así como traslado hospitalario en aquellos casos que sea indispensable.

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene la Sra. Basurto (Errenteria IrabaziZ) manifestando que los CIEs no cumplen la finalidad para la que fueron creados, no sólo lo dicen ellos sino incluso el Defensor del Pueblo, en un artículo de este año, comentaba que en el año 2015 el 59% de los 6.930 emigrantes retenidos en los CIEs no fueron



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

kanporatu, 2.841 soilik kanporatu ziren, nahiz eta Espainiako estatuan aurreko urtean 10.594 kanporatu ziren; alegia, 7.752 pertsona ez ziren CIEetatik pasa. Horrek frogatzen digu ez dela beharrezkoa zentro horietan egotea. Barneratzeko eta kanporatzeko prozesu honek guztiak urtean 20 milioi euro inguruko kostua du. Kontua ez da zerbait berria asmatzea, baizik legea betetzea. Urtarrilaren 11ko 4/2000 Legeak xedatzen ditu bestelako neurriak, adibidez, aldizka agintaritzen aurrean aurkeztea, leku jakin batean bizi behar izatea, pasaportea kentzea... Azpimarratu nahi du CIEtan dauden pertsonak ez direla delitugileak, baizik legean tipifikatutako falta administratiboren bat egin dutela, eta larrienen artean dago Espainiako lurraldean egoera irregularrean egotea; legeak esaten du falta hori zigortu behar dela 501 eta 10.000 euro arteko isunarekin, eta ez CIE batean atxikita. Legea sistematikoki ez da betetzen, 5. artikulua zirkulatzeko askatasunari buruzko da eta esaten du atzerritarrek eskubidea izango dutela Espainiako lurraldeak libreki ibiltzeko, nahiz eta errealitatea izan atzerritarrak izate hutsagatik CIE batean sartu nahi dituztela. 60 artikuluak esaten du atxikipen-lekuak ez direla espetxe-izaerakoak izango, baina gehienak kartzela izandakoak dira eta egoera osasungaitzetan daude; baita ere esaten du zerbitzu sozial, juridiko, kultural eta sanitarioak izango dituztela, bertan dauden atzerritarrek soilik ez dutela izango ibiltzeko eskubidea, baina sistematikoki urratzen dira barnekoen eskubide guztiak, ez dago gizarte-langilerik zentroetatik eta ezta aholkulari juridikorik ere asiloa eskatzeko eskubidearen berri emateko edo beren abokatuekin harremanetan jartzeko, eta, noski, herriaren defendatzaileak salatu zuen zerbitzu medikoa ez

expulsados, sólo fueron expulsados 2.841. El número de expulsiones el año pasado en el Estado Español fue de 10.594, luego 7.752 personas no pasaron por las CIEs. Esto demuestra que no es necesaria la estancia en estos centros. Todo este proceso de internamiento y expulsión cuesta alrededor de 20 millones de euros al año. No es cuestión de inventar nada nuevo, simplemente es la Ley la que se tiene que cumplir. La Ley 4/2000 del 11 de enero ya establece otro tipo de medidas como alternativa a los CIEs como puede ser la presentación periódica ante las autoridades, residencia obligatoria en determinado lugar, retirada del pasaporte...Quiere recalcar que no son delincuentes las personas que están en los CIEs sino que han cometido alguna de las faltas administrativas ya tipificadas en la propia Ley, que dice que dentro de las más graves, es la de encontrarse de forma irregular en Territorio Español, la Ley dice que esta falta se debe sancionar con una multa que oscila entre los 501 y 10.000 euros y no con el internamiento en un CIE. La Ley se incumple sistemáticamente, el Art. 5 que habla del derecho a la libertad de circulación dice que los extranjeros tendrán derecho a circular libremente por Territorio Español cuando la realidad es que por ser simplemente extranjeros se les interna en un CIE. El Art. 60 dice que los lugares de internamiento no tendrán carácter penitenciario cuando la mayoría son antiguas cárceles en condiciones insalubres, dice también que estarán dotados de servicios sociales, jurídicos, culturales y sanitarios, los extranjeros internados estarán privados únicamente del derecho ambulatorio pero la verdad es, que sistemáticamente se vulneran todos los derechos de los internos, no hay trabajadores sociales en los centros, ni asesores jurídicos que les informen sobre sus derechos de

dela iraunkorra eta gainera esku pribatuetan dagoela; zer esanik ez pertsona horiek behar dezaketen laguntza psikologikoaren inguruan. Salatu dute interpreterik ez dagoela ere, beren egoerari buruzko informaziorik ez dutela, kanporatzekoak badira noiz kanporatuko dituzten... 2009an Nazio Batuek Espainiaren aurkako salaketa-irizpen bat eman zuten; honela dio hitzez hitz: “la detención arbitraria, vejámenes, torturas y malos tratos de un ciudadano Marroquí en el CIE de Aluche en mayo del 2012”. En 2016 la ONU suspende a España en materia de discriminación racial: “en relación con los Centros de Internamiento Extranjeros el Comité insta a España a evitar el uso recurrente de la privación de la libertad de emigrantes en situación irregular, que siempre se consideren posibles medidas alternativas, que sean investigadas las denuncias de torturas o malos tratos de forma independiente rápida y completa. España debe reducir el tiempo para resolver las solicitudes de asilo”. Laburbilduz, ez dute betetzen sortu zituztenean ezarritako helburua, barruan daudenen eskubide guztiak urratzen dira eta urtean milioika euroko kostu ekonomikoa eragiten dute; horregatik, bere taldearen ustez ez dute zentzurik eta itxi egin behar dira. Errenteria IrabaziZetik animatzen dituzte CIEen aurkako plataformaren ekimenetan parte hartzera, eta beren babesa ematen diete giza eskubideak defendatzen dituzten plataforma guztiei.

solicitar asilo o les pongan en contacto con sus abogados y por supuesto el servicio médico, como ya denunciaba la Defensora del Pueblo es insuficiente, no es permanente y además está en manos privadas, que decir de la asistencia psicológica que estas personas pudieran necesitar. También se ha denunciado la inexistencia de interpretes, la desinformación sobre su situación, fecha de expulsión si se fuera a llevar a cabo...En el 2009 Naciones Unidas emitió un dictamen de condena contra España. Cita literalmente: “la detención arbitraria, vejámenes, torturas y malos tratos de un ciudadano Marroquí en el CIE de Aluche en mayo del 2012”. En 2016 la ONU suspende a España en materia de discriminación racial: “en relación con los Centros de Internamiento Extranjeros el Comité insta a España a evitar el uso recurrente de la privación de la libertad de emigrantes en situación irregular, que siempre se consideren posibles medidas alternativas, que sean investigadas las denuncias de torturas o malos tratos de forma independiente rápida y completa. España debe reducir el tiempo para resolver las solicitudes de asilo”. Resumiendo, no cumplen con la finalidad para la que fueron creados, se vulneran todos los derechos de los internos y suponen un coste económico de millones de euros al año, por esto su Grupo considera que no tienen sentido y que deben cerrarse. Desde Errenteria IrabaziZ animan a secundar las iniciativas de la plataforma contra los CIEs y ofrecen su apoyo a todas las plataformas de defensa de los derechos humanos.

* Oyarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du bere taldeak mozioaren alde bozkatuko duela, giza eskubideen errespetua beste edozeren gainetik

*Interviene en euskera la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV) manifestando que su Grupo va a votar a favor de la moción, porque el respeto de los derechos humanos



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

dagoelako. Zentro hauetan barneratuta dauden pertsonek beren bizitza-eskubideak bermatuta eduki behar dituzte; hori hala ez den heinean, egoera hori salatzen dute, zentro horiek ixtea eskatzen dute eta bien bitartean eskubide-urraketa hori etetea.

* Palencia jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) aurkeztutako mozioaren inguruan adierazi du Alderdi Sozialistak Diputatuen Kongresuan erregistratu duela legez besteko proposamen bat urgentziaz neurriak har ditzaten bermatzeko Atzerritarrak Barneratzeko Zentroak egokitzen direla eta barruan daudenen eskubideak bermatzen direla. Atzerritarrak barneratzeko zentroak badaude Europar Batasuneko herrialde gehienetan, migrazio-politika komunaren baitan egokituak, eta Espainian hasi ziren Schengen akordioa sinatu zutenean 1985ean. Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko uztailaren 1eko 7/1985 Lege Organikoak ezartzen du 26.2 artikuluan judizialki erabaki ahal izango dela, prebentzio- edo kautela-neurri gisa, atzerritarrak sartzea kartzela-izaera ez duten zentroetan, betiere kanporatzeko kausa jakinen batean badaude, eta espedientea bideratzen den bitartean. Gaur egun, mantentzea ia nahitaezkoa da Europar Batasuneko Zuzenbidearen eta hori garatzen duen Espainiako Ordenamendu Juridikoaren arabera. Hori esanda, azkenaldian salaketak egin dituzte GKEek eta hainbat komunikabidek, eta agerian geratu da zentro horien kudeaketaz eta segurtasuna bermatzeaz arduratzen direnen utzikeria; Barne Ministerioaren ardura da hori. Zenbait talde politikok arazoaren jatorriari begiratu beharrean, konponbide magikoak proposatzen dituzte, adibidez, guztiz ixtea, esan gabe zer egingo luketen, adibidez, delitu bat egin eta

está por encima de cualquier otra cosa. Las personas que están internadas en estos centros tienen que tener garantizados sus derechos, no siendo así, su Grupo denuncia esta situación y solicita el cierre de los centros.

*Interviene el Sr. Palencia (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando en relación a la moción que se presenta, que el Partido Socialista ha registrado en el Congreso de los Diputados una Proposición no de Ley sobre la adopción urgente de medidas para asegurar la adecuación de los Centros de Internamiento de Extranjeros y la garantía de los derechos de las personas internadas. Los centros de internamiento de extranjeros, (CIEs), son un elemento existente en la mayor parte de países de la Unión Europea, adoptado en desarrollo de la política migratoria común, que en España se inicia con la suscripción del acuerdo Schengen de 1985. Es la Ley Orgánica 7/1985, de 1 de julio, sobre Derechos y Libertades de los Extranjeros en España, la que establece en su artículo 26.2 la posibilidad de acordar judicialmente, con carácter preventivo o cautelar, el ingreso de extranjeros, en centros que no tengan carácter penitenciario y que se hallen incursos en determinadas causas de expulsión mientras se sustancia el expediente. Actualmente, su mantenimiento es prácticamente un imperativo del Derecho de la Unión Europea y del Ordenamiento Jurídico Español que lo desarrolla. Dicho esto, decir que últimamente han ido apareciendo denuncias por parte de diferentes ONG´S y en diferentes medios de comunicación que ponen en evidencia el estado de abandono de estos centros por parte del responsable de su gestión y de garantizar la seguridad, que corresponde al Ministerio del Interior. Hay grupos

zigorraren ordez kanporatzea adosten dutenekin, edo Batasuneko zuzenbidean nola txertatu hori eta nola bete Batasuneko kide gisa ditugun betebeharrak. Beste batzuek guztia konpontzen dute segurtasun pribatua kontratatuta eta kudeaketa pribatizatuta. Gobernuak sentsibilitate falta erakutsi du atzerritarren bizitzaren eta planen inguruan, kanporatzearekin zigortuta ere, eskubide guztien subjektu izaten jarraitzen baitute, joan-etorrietarako askatasunaren subjektu izan ezik. Hartara, marko juridikoak eta botere publikoek beren ardurapean dituztenean zaintzaren eta tratamenduaren inguruan duten jardunak zorrotz bermatu behar ditu gainerako eskubide guztiak. Momentuz, CIEak beharrezkoak dira eta ezin dugu ahaztu instrukzio-epaileek kontrola ditzaketela, barneratzeen eta barnekoek beren oinarrizko eskubideen inguruan planteatutako eskaera eta kexak entzutearen arduradun bakar baitira. Horregatik, sozialistek Diputatuen Kongresuan aurkeztutako legez besteko proposamenaren bidez, hau proposatu dute:

políticos que en vez de atender al origen del problema, proponen soluciones mágicas como es el cierre total, sin explicar qué hacer con las personas que por ejemplo han cometido un delito y se acuerda la expulsión como sustitutoria de la pena, o cómo casa esto, con el derecho comunitario y el cumplimiento de nuestras obligaciones como socios de la Unión Europea. Otros lo solucionan todo contratando seguridad privada y privatizando la gestión. El Gobierno está mostrando una falta de sensibilidad en relación a la vida y a los planes de los extranjeros que, incluso sancionados con la expulsión, siguen siendo sujetos de todos los derechos excepto del de la libertad deambulatoria. Por tanto, el marco jurídico y el desarrollo de todas las actuaciones de los poderes públicos relativas a su custodia y tratamiento cuando están bajo su responsabilidad, no puede ser otro que el de la más escrupulosa garantía de todos los demás derechos de los que gozan. Los CIEs de momento son necesarios y no podemos olvidar que pueden ser objeto de control por los jueces de instrucción, únicos responsables que pueden autorizar el internamiento y la resolución de peticiones y quejas que planteen los internos en cuanto afecten a sus derechos fundamentales. Por eso los socialistas mediante la proposición no de Ley presentada en el Congreso de los Diputados han propuesto:

1.- Gobernuak aldizka estatistikak egitea eta Barne Ministerioak argitaratzea, beste hainbat datu objektiboren artean hauen berri emateko: atzerritarren kopuru, nazionalitate, sexu eta adinak; zentroetako batez besteko egonaldiak; barneko atzerritarren nazionalitateak; barneratzeak eragin dituzten arrazoiak; aurrekari penalak dituzten

1.- Que el Gobierno elabore estadísticas periódicas publicadas por el Ministerio del Interior donde se dará cuenta, entre otras cuestiones del número, nacionalidad, sexo y edad, entre otros datos objetivos de los extranjeros internados en los Centros; de la estancia media en los centros; de las nacionalidades de los extranjeros internados; de la motivaciones de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

atzerritarrak eta aberriratzearekin amaitzen diren barneratzeen portzentajea.

los internamientos; de los extranjeros internados con antecedentes penales y del porcentaje de internamientos que concluyen con la repatriación.

2.- Barneratuen eskubideak bermatzeko ezinbesteko neurri guztiak hartzea eta, bereziki, osasun-laguntza jasotzeko eskubidea bermatzekoak.

2.- Adoptar todas las medidas imprescindibles para garantizar los derechos de los internos, especialmente, el derecho a la asistencia sanitaria.

3.- Estatuko Segurtasun eta Indar Kidegoei agindu zehatzak ematea barneratzerik eska ez dezaten aberriratzeko ezinbestekoa izan eta eskubideak gutxiago murrizten dituzten bestelako kautela-neurriak daudenean.

3.- Dictar las instrucciones precisas dirigidas a las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del estado para que no se solicite el internamiento excepto cuando el mismo se estime indispensable para una repatriación y no existan otras medidas cautelares menos restrictivas de derechos.

4.- Erraztea barnekoek indarreko legerian aurreikusitako eskubideak balia ditzaten eta baliatze hori erreala eta efektiboa izan dadin.

4.- Facilitar el ejercicio de los derechos del interno previstos en la legislación en vigor y que esto se haga de manera que dicho ejercicio sea real y efectivo.

5.- Atzerritarrak barneratzeko zentroen abandonu-egoera berehala konpontzeko beharrezko neurri guztiak hartzea, besteak beste, hauek:

5.- Acordar todas las medidas necesarias para que se revierta de manera urgente el estado de abandono de los Centros de Internamiento de Extranjeros y entre otras:

+ Zentroen bizigarritasun-baldintzei eta bete beharreko baldintzei dagokienez, legearen aurreikuspenak betetzeari buruzko azterlana egitea

+ Elaborar un estudio sobre las condiciones de habitabilidad de los Centros y su adecuación a la previsiones de la Ley en cuanto a las condiciones que deben cumplir.

+ Bermatzea zentroetako bizi-baldintzen eta arauen aplikazioaren inguruko gardentasuna guztizkoa izango dela

+ Garantizar una política de total transparencia en cuanto a las condiciones de vida de los centros y la aplicación de las normas.

+ Protagonismo handiagoa ematea Gobernuz Kanpoko Erakundeei kudeaketan eta erabilgarritasun egiaztatua duten barneratuen sorospenean lagun

+ Dar mayor protagonismo a las Organizaciones No Gubernamentales para colaborar en la gestión y auxilio a los internos cuya utilidad está acreditada.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

dezaten

+ Beharrezko bitarteko materialak jartzea bermatzeko barneratuen eta horiek zaintzen dituztenen segurtasuna

+ Dotar de los medios materiales necesarios que garanticen la seguridad de los internos y de quienes les custodian.

+ Barneratze horrek eragindako beharretarako arreta integrala ematea, barneratuen eskubideetan ahalik eta eragin txikiena izan dezan

+ Facilitar una atención integral de las necesidades que dicho internamiento provoque, para que el impacto en los derechos de los internados sea el menor posible.

Horregatik, guztiagatik, bere taldea abstenitu egingo da.

Por todas estas razones su Grupo se va a abstener.

* Karrikiri andreak (Orereta/Errenteriako EHBildu) adierazi du bestela izan ez litekeenez, bere taldeak IrabaziZek aurkeztutako mozioaren alde bozkatuko duela. CIEak egotea errealitaterako kolpea da, agerian uzten dutelako europar eta mendebaldetar gisa esaten dutenaren eta egiten dutenaren arteko diferentzia. Agerian uzten du elkartasuna eta errefuxiatuen egoeraren inguruko ardura aipatzen dituzten diskurtsoen hipokresia handia ere. Errealitatea da hamarkada batean ugaritu egin dela CIE kopurua, zehazki, 2000. urteaz geroztik. 2000. urtean 324 CIE zeuden Europan eta, gaur egun, aldiz, 500. Horrek erakusten du hipokresia dela nagusi. CIEak gerretatik, arraza-gatazketatik edo hondamendi naturaletatik ihes doazen errefuxiatuz beteta daude. Zoritxarrez, emakumeek ere indarkeria mota guztietatik ihes egin behar izaten dute. Xelebrea da, pertsona horietaz erruki direlako, elkartasuna adierazten dietelako, baina komunikabideen agendek markatutakoaren harira. Bistakoa da pertsona horiei bizkarra ematen zaiela Espainiako estatura iristen direnean. Guztiok ikusi

* Interviene la Sra. Karrikiri (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando, que como no podía ser de otra manera, su Grupo va a votar a favor de la moción presentada por IrabaziZ. La existencia de los CIEs supone un golpe a la realidad poniendo al descubierto la diferencia entre lo que dicen como Europeos y Occidentales y lo que hacen. Se pone al descubierto también la gran hipocresía de los discursos que se hacen referentes a la solidaridad y la preocupación por la situación de los refugiados. Es una realidad el incremento que ha habido en cuanto al número de CIEs en una década, en concreto desde el año 2000. De los 324 centros que existían en Europa en el año 2000 se ha pasado a 500. Esto es demostrativo de la hipocresía imperante. Los CIEs están llenos de personas que son refugiados que huyen de guerras, de conflictos raciales, de catástrofes naturales...También por desgracia mujeres que se ven obligadas a huir de todo tipo de violencias. Resulta gracioso porque se compadecen de estas personas, muestran su solidaridad, eso sí, a golpe de lo que marcan las

dugu Guardia Zibilak nola egiten dien harrera ke-potoekin Espainiako mugetan, eta gutxi balitz ere, CIEetan barneratzen dituzte. Mozioaren azalpen-zatian ondo adierazten den moduan, hainbat erakunde internazionalek salatzen dute CIEetan tratu txarrak, isolamenduak eta beste hainbat kontu gertatzen direla; alegia, CIEetan etengabe urratzen direla oinarrizko eskubideak; eta instalazio publikoak dira eta agerikoa da kartzela bihurtu direla. Kartzela arrazista horietan sartzen dira inolako deliturik egin ez duten pertsonak, delitu bakarra dute egoera irregularrean egotea, adibidez, ibilgailu baten aseguruaren paperak behar bezala ez edukitzearen pare. Talde Sozialistako ordezkariei zuzentzen zaie adierazteko Espainiako gobernuari CIEak ixteko egindako eskaera (Euskal Herrian ez dago bat ere) planteamendu erreala dela. Kondena-epai irmoa dagoenean, pertsona deitu eta epaia burutu behar da. Zailtasunak badaude pertsona hori aurkitzeko, gainerakoekin bezala egin beharko litzateke; ez dugu ahaztu behar pertsonak direla eta gainerakoen eskubide berak dituztela. Bere taldeak, noski, mozioaren alde bozkatuko du, betiere pertsona horiek Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunean eta Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Europako Hitzarmenean aitortuak dituzten eskubideak babestearren, badirudi-eta etengabe ahazten dutela hor daudela eta bete egin behar direla.

agendas de los medios de comunicación. Queda patente, cómo se les da la espalda a estas personas una vez que llegan al Estado Español. Todos han visto imágenes de la Guardia Civil recibiéndoles con botes de humo en las fronteras Españolas y para más INRI les encierran en estos CIEs. Como bien se indica en la parte justificativa de la moción, se viene denunciando por parte de diferentes organismos internacionales CIEs en los que existen malos tratos, aislamiento...la lista es interminable, en definitiva CIEs en los que se produce una reiterada violación de los derechos fundamentales, esto en unas instalaciones que son públicas y que cómo es patente se han convertido en cárceles. Cárceles racistas en las que se ingresa a personas que no han cometido delito alguno, su único delito es el de estar en una situación irregular que podría ser comparable a por ejemplo no tener en regla los papeles del seguro de un vehículo. Se dirige a los representantes del Grupo Socialista manifestando que la solicitud al Gobierno Español del cierre de las CIEs (en Euskal Herria no existe ninguno) es un planteamiento real. Cuando existe una sentencia condenatoria firme, hay que citar a la persona y ejecutar la sentencia. Si existen dificultades para encontrar a esa persona se debería de actuar como con los demás, no podemos olvidar que son personas y tienen que tener los mismos derechos que los demás. Por supuesto que su Grupo va a votar a favor de la moción, siempre en aras de la protección de los derechos que estas personas tienen reconocidos en la Carta Internacional de Derechos Humanos y también en el Convenio Europeo de Derechos Humanos y Libertades Fundamentales que parece que constantemente se olvida que están ahí y que están para cumplirse.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Amaitu dira mintzaldiak.

Udalbatzak, aldeko 14 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteriako IrabaziZ, EAJ/PNV) eta 7 abstentziorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos), hau erabaki du:

**ERABAKI DU**

**Onartzea** Errenteriako IrabaziZ taldeak aurkeztutako mozioa, (erabaki honen azalpen-zatian jasota dago).

Finalizadas las intervenciones,

El Pleno de la Corporación por mayoría de 14 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteriako IrabaziZ y EAJ/PNV) y 7 abstenciones (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos),

**ACUERDA**

**Aprobar** la moción presentada por el Grupo Municipal Errenteriako IrabaziZ relativa cierre de los centros de internamiento de extranjeros (CIE) y que consta en la parte expositiva del presente acuerdo.

**11. Galdera-eskariak.**

----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 20:20 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut autonomia-erkidegoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

**11. Ruegos y Preguntas.**

----------

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 20:20 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.